Errenteriako Udala

Zk./ Nº 2022/18

Data / Fecha 2022/10/04

AKTA / ACTA

**ERRENTERIA**
**UDALA**
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2022IGOB0018
**Gaia/**Asunto**:** 2022/10/04 Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkura/Junta de Gobierno Local ordinaria de fecha 04/10/2022

**Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko urriaren 04an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2022ko urriaren 04ako 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkari orokorra.

Ez dira etorri, baina ezinetorria adierazi dute, Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi (EH Bildu Orereta/Errenteria) eta José Manuel Ferradás Freijo (Elkarrekin Errenteria).

**1. 2022ko irailaren 07ko ohiko bilkurari (2022IGOB0015), 2022ko irailaren 15eko ezohiko bilkurari (2022IGOB0016) eta 2022ko irailaren 23ko ezohiko bilkurari (2022IGOB0017) dagozkien aktak irakurri eta, hala bada, onartzea.**

Oharrik gabe onartu da.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 04 de octubre de 2022.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 04 de octubre de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejalas y Concejales:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Nagore Sarasola Otermin.

No asisten excusando su inasistencia, Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi (EH Bildu Orereta/Errenteria) y José Manuel Ferradás Freijo (Elkarrekin Errenteria).

**1. Lectura y aprobación en su caso de las actas correspondientes a la sesión ordinaria del 07 de septiembre de 2022 (2022IGOB0015), a la sesión extraordinaria del 15 de septiembre de 2022 (2022IGOB0016) y a la sesión extraordinaria del 23 de septiembre de 2022 ( 2022IGOB0017)**

Se aprueba sin observación alguna.

ESKU5bc097d4-ca97-4569-b050-a3b4b15f9063

**2. ALDURA GUNEA 43ko BARINGARATE BEKOA Baserrian NEKAZARITZA ESPLOTAZIOARI LOTUTAKO BI ETXEBIZITZEI lehen erabilpen baimena ematea. (2009LOMA0028)**

Alkatetzaren 2009ko irailaren 3ko Ebazpenaren bidez, JOSE MARTIN ARAOLAZA ZUMETA Y OTROS enpresari obra lizentzia ematea erabaki zen, ***ALDURA GUNEA 43ko BARINGARATE BEKOA Cºn NEKAZARITZA ESPLOTAZIOARI LOTUTAKO BI ETXEBIZITZA BERRITZEKO,*** Javier Oteiza Larrechea arkitektoak idatzitako *Baringaratebekoa Etxean bi etxebizitza eraikitzeko oinarrizko proiektuaren arabera (EHAEOk 2009/07/07an bisatua).*

Aipaturiko obrak burutzeko emandako baimenaren 9.1 zenbakiko baldintzaren arabera , eskatzaileak eskabidearekin batera, 2015/10/09ko sarrera erregistroa, 11612 duela, honako dokumentazio hau aurkeztu du:

- Obra Bukaerako Egiaztagiria, Javier Oteiza Larrechea sinatua (e)k , EHAEOak ikus-onetsia 2015/08/28e/an, hala nola Michel Echenique Echandi arkitekto teknikoak sinatua.
- Obraren behin betiko likidazioa, teknikari horiek sinatua eta EHAEOak ikus-onetsia 2015/08/15e/an.
- Eraikinaren fatxadetako argazkiak.
- Obra Bukaerako Dokumentazioa, Memoria eta Planoak, teknikari horiek idatziak eta EHAEOak ikus-onetsiak 2015/08/15e/an.

2022ko irailaren 26an, udal arkitektoak lehen erabilpen baimenaren **aldeko txostena** egin du,eta bertan jasotzen da hurrrengoa:

Zerga-oinarria **450.816,18 €** dira, eraikuntzei, instalazio ei eta obrei buruzko Zerga ezartzearen ondorioetarako.

**2. Concesión de licencia de primera utilización DE DOS VIVIENDAS VINCULADAS A LA EXPLOTACIÓN AGROPECUARIA en el Cº BARINGARATE BEKOA en ALDURA GUNEA 43. (2009LOMA0028)**

Mediante Resolución de Alcaldía de fecha 3 de septiembre de 2009, se acordó conceder a JOSE MARTIN ARAOLAZA ZUMETA Y OTROS, ***licencia de obras para REHABILITACION DE DOS VIVIENDAS VINCULADAS A LA EXPLOTACION AGROPECUARIA en el Cº BARINGARATE BEKOA en ALDURA GUNEA 43,*** según proyecto *Básico y de Ejecución de dos viviendas en la Casa Baringaratebekoa redactado por el arquitecto Javier Oteiza Larrechea (visado por el COAVN el 07/07/2009).*

De acuerdo con el condicionante nº9.1 de la licencia concedida para la realización de las obras referidas, el peticionario ha presentado junto con la solicitud, con registro de entrada nº 11612, de 09/10/2015, la siguiente documentación:

- Certificado Final de Obra, suscrito por Javier Oteiza Larrechea, visado por el C.O.A.V.N el 28/08/2015, así como por el arquitecto técnico Michel Echenique Echandi.
- Liquidación definitiva de la obra, suscrita por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N. de 28/08/2015.
- Fotografías de las fachadas del edificio
- Documentación Fin de obra, Memoria y Planos redactados por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N. 28/08/2015

Con fecha 26 de septiembre de 2022, el arquitecto municipal, emite **informe favorable** a la concesión de la licencia de primera utilización y en el mismo se establece lo siguiente:

La base imponible a efectos de aplicación del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras asciende a la cantidad de **450.816,18 €.**

ESKU5bc097d4-ca97-4569-b050-a3b4b15f9063

Erantsi beharko da "Eraikuntza eta Etxebizitza Estatistika" inprimakia behar bezala beterik, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren 4/86 Legeak ezarritakoaren arabera.

Se deberá adjuntar el impreso de "Estadística de Edificación y Vivienda" debidamente cumplimentado, en función de lo establecido en la Ley 4/86 de Estadística de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hirigintzako zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Hirigintzako Aholkularu Juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo del Concejal Delegado de Urbanismo y la conformidad dada por la Asesora Jurídica de Urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Hirigintzako Delegatuaren proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, a propuesta del Delegado de Urbanismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ERABAKI DU:**

**ACUERDA**

**LEHENENGOA.-** Ematea **MARTIN ARAOLAZA ZUMETA Y OTROS enpresari**, ALDURA GUNEA 43ko BARINGARATE BEKOA Cº n NEKAZARITZA ESPLOTAZIOARI LOTUTAKO BI ETXEBIZITZEI **lehen erabilpen baimena**. Hori guztia aurkeztutako obra amaierako dokumentazioaren arabera eta azalpen zatian aipatzen dena.

**PRIMERO.-** Conceder a **MARTIN ARAOLAZA ZUMETA Y OTROS, licencia de primera utilización** DE DOS VIVIENDAS VINCULADAS A LA EXPLOTACION AGROPECUARIA en el Cº BARINGARATE BEKOA en ALDURA GUNEA 43**,** según documentación final de obras aportada y que se hace constar en la parte expositiva.

**BIGARRENA.- Ordainduko dira** dagozkien udal zergak **450.816,18** eurotako zerga-oinarriaren arabera.

**SEGUNDO.- Se abonarán** los correspondientes derechos municipales sobre la base de **450.816,18 euros.**

**3. Kukai Kultur Elkartea onura publikoko irabazi asmorik gabeko elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko eskaera. (2022IIGE0010)**

**3. Solicitud de inscripción de la asociación "Kukai Kultur Elkartea" en el Registro Municipal de asociaciones sin animo de lucro de interés Municipal. (2022IIGE0010)**

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

Erregistro honetan inskribatua egoteko baldintzak bete behar dira:

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

ESKU5bc097d4-ca97-4569-b050-a3b4b15f9063

1.- Errenteriako udalerrian lankidetza-lanak egitea.

2.- Eusko Jaurlaritzen Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribatua egotea.

3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

2022ko maiatzaren 25ean Jon Maya Seinek, Kukai Kultur Kultur Elkartea ordezkatuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera, erregelamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen.

Kultura saileko arduradunaren 2022ko irailaren 16ko txostena ikusi da. Bertan adierazten denez, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa bat dator eta elkarte horren inskripzioaren aldeko txostena egiten du.

Kulturako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Kulturako arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

**E R A B A K I D U:**

1.- “Kukai Kultur Elkartea” Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzailetzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria

2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

Con fecha 25 de mayo de 2022, Jon Maya Sein en representación de “Kukai Kultur Elkartea”, solicita ser inscrita en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento.

Visto el informe del responsable del Departamento de Kultura, de fecha 16 de septiembre de 2022, en el que se indica que la documentación presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Cultura y la conformidad dada por el responsable de Cultura a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello en el ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**A C U E R D A:**

1.- Proceder a la inscripción de la asociación “Kukai Kultur Elkartea” en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del articulo 9 del reglamento Municipal.

ESKU5bc097d4-ca97-4569-b050-a3b4b15f9063

**4. Xenpelar Bertso Eskola elkartea onura publikoko irabazi asmorik gabeko elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko eskaera (2022IIGE0011)**

Xenpelar Bertso Eskolak Udal Elkarte-Erregistroan inskribatzea eskatu du.

Xenpelar Bertso Eskolak helburu hau du: Haurrekin klaseak eman ahal izatea eta bertso-eskolarentzat leku eroso bat lortzea. Gainera, bertso emankizunak eta txapelketak ere antolatuko ditu herri mailan.

Udal Hizkuntza Politikaren ikuspegitik, Xenpelar Bertso Eskolaren egitekoa erabat estrategikoa bihurtu da euskararen berreskurapen bidean, eta bertso eskola bera arnasgune funtzionala ere badela iruditzen zaie.

Xenpelar bertso eskolak eskariarekin batera inskribatzeko eskatzen den dokumentazio administratibo guztia aurkeztu du eta Udalari baimena eman dio Ogasunean eta behar den lekuan egunean dagoela egiazta dezan. Hauek dira aurkeztu dituen dokumentuak:

**DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA**

1. Entitatearen Estatutuak

2. Entitatearen Eraketa Akta

3. Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroaren ebazpena

4. Entitatearen behin betiko IFZ

5. Lehendakariaren NAN

6. Ogasunaren ziurtagiria

7. Gizarte Segurantzaren ziurtagiria (oraindik langilerik altan ez duenez, ez da “existitzen”)

**4. Inscripción de la Asociación “Xenpelar Bertso Eskola” en el registro municipal de asociaciones sin animo de lucro de interés municipal (2022IIGE0011)**

Xenpelar Bertso Eskola a solicitado la inscripción en el Registro Municipal de Asociaciones.

Xenpelar Bertso Eskola tiene un objetivo: Impartir clases a la juventud y conseguir una escuela confortable. Además organizará festivales y concursos de bertsolaris a nivel municipal.

Desde Política lingüística municipal se considera que la labor de Xenpelar Bertso Eskola es totalmente estratégica en la recuperación del euskera,  y en estos momentos es una especie de nicho vital funcional.

Xenpelar bertso eskola ha presentado junto con la solicitud toda la documentación administrativa exigida para su inscripción y ha autorizado al Ayuntamiento para que compruebe que se encuentra al corriente en Hacienda y donde sea necesario. La documentación presentada es la siguiente:

**DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA**

1. Estatutos de la entidad

2. Acta de Constitución de la Entidad

3. Resolución del Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco

4. NIF definitivo de la entidad

5. DNI del Presidente

6. Certificado de Hacienda

7. Certificado de la Seguridad Social (al no tener todavía ningún trabajador en alta, no existe)

ESKU5bc097d4-ca97-4569-b050-a3b4b15f9063

8. Errenteriako udal intereseko irabazi asmorik gabeko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko eskaera

8 Solicitud de inscripción en el registro de interes municipal de asociaciones sin animo de lucro.

Udal Hizkuntza Politka departamentuko arduradunaren 2022ko irailaren 21eko txostena ikusi da. Bertan adierazten denez, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa bat dator eta elkarte horren inskripzioaren aldeko txostena egiten du.

Visto el informe del responsable del Departamento de Política Lingüística Municipal, de fecha 21 de septiembre de 2022, en el que se indica que la documentación presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Udal Hizkuntza Politika zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena.

Vista la propuesta de acuerdo de la Concejala Delegada de Política Lingüística Municipal.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**E R A B A K I D U:**

1.- **“Xenpelar Bertso Eskola”** Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.- Honen berri interesatuari eta kontuhartzailetzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

**A C U E R D A:**

1.- Proceder a la inscripción de la asociación **“Xenpelar Bertso Eskola”** en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del articulo 9 del reglamento Municipal.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2022ko urriaren 04a

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:25 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 04 de octubre de 2022

Idazkari orokorra / Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU5bc097d4-ca97-4569-b050-a3b4b15f9063**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2022IGOB0018-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Orokorra
Data / Fecha: 2022/10/04 12:16:58